

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

1283

34/2026 DEKRETUA, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez bigarrenez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko burua eta kideak izendatzen dituen Dekretua.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeak (EAEHL) 18.4 artikuluan jasotako aurreikuspenarekin bat etorriz, ekainaren 8ko 148/2021 Dekretua eman zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko burua eta kideak izendatzen dituen (2021eko ekainaren 15eko EHAA, 116. zk.). Dekretu hori, gero, martxoaren 19ko 35/2024 Dekretuak aldatu zuen.

EAEHLren 26. artikulua araberaz, izendatzeko aurreikusitako prozedura berberen bidez ordeztu behar dira Hauteskunde Batzordeko bokalak.

EAEHLren 18.2 artikulua aplikatuz, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak erabaki du, 2026ko otsailaren 17an, Javier Gómara Urdiain jauna Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko bokal ez-judizial hautatzea.

EAEHLren 18.4 artikulua araberaz, Eusko Jaurlaritzaren dekretuen bidez izendatu behar dira burua eta bokalak.

Beraz, dekretu honek ekainaren 8ko 148/2021 Dekretua aldatzea dakar, ordezen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko bokal ez-judizial bat izendatzen baita, Eusko Legebiltzarrak hautatua, ekainaren 15eko 5/1990 Lege haren 18.1.c) artikulua agintzen duen eran.

Horrenbestez, Segurtasuneko sailburuak proposatuta eta Gobernu Kontseiluak 2026ko martxoaren 10ean egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko bokal ez-judizial izendatzea Javier Gómara Urdiain jauna, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak hautatua.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 10ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Segurtasuneko sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.